



**Euskadiko Autonomia Erkidegoko IKASTETXEETAN KORONABIRUSAREN
(SARS-CoV-2) AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRA, 2019-
2020 ikasturtearen amaieran.**

AURKIBIDEA

- 1. SARRERA**
- 2. HELBURUA**
- 3. ERANTZUKIZUNAK**
- 4. OINARRIZKO ERREFERENTZIAK**
- 5. HIGIENE NEURRIAK**
- 6. AURREZ AURREKO IRAKASKUNTZA-JARDUERA GARATZEKO JARRAIBIDEAK**
- 7. BESTELAKO GOGOETA BATZUK**
- 8. ERLAZIONATUTAKO DOKUMENTAZIOA**

ERANSKINAK

- **HIGIENE PERTSONALEKO NEURRIAK**
- **IKASTETXEKO HIGIENE NEURRIAK**
- **COVID-19ri AURRE EGITEKO OINARRIZKO ERREFERENTZIEI ZABALKUNDEA**
- **EMATEKO KARTELA**
- **MASKAREN ERABILERARI ZABALKUNDEA EMATEKO KARTELA**
- **NEURRI NAGUSIEN LABURPENA**



Dokumentu honen helburua da ikastetxeetan hartzen diren higie-neurriak antolatze-ko eta indartzeko jarduera-jarraibideak ematea, eta COVID-19ren aurrean abian jarri behar diren prebentzio-neurriak eta jarduerak ezagutaraztea, lehentasunez 2019-2020 ikasturteko hirugarren hiruhilekoan sartuko direnei arreta emanez. Helburua da eskola-komunitatea osatzen duten pertsonen artean birusaren transmisioa saihestea/murritztea eta, aldi berean, aurrez aurreko hezkuntzarako sarbidea bermatuz.

1. SARRERA

Jakina denez, SARS-CoV-2 koronabirusa arnas-bidez transmititzen den birus bat da, baina kutsatutako pertsona baten azala, objektua edo eskua ukitzean ere kutsa daiteke. Inkubazio-aldia 2 eta 14 egun bitartekoa izan daiteke. Horregatik, babes-neurri onenak kutsatutako eta birusaren eramaileak diren pertsonak isolatzea eta norberaren higie-ne dira.

2019-2020 ikasturteko hirugarren hiruhilekoaren amaierari heltzen diogun une honetan, eta dokumentu hau egiten ari garen honetan, nolabaiteko ziurgabetasun-egoerak jarraitzen du, eta une oro pandemiaren bilakaeraren eta osasun-agintari-ek esan dezaketenaren zain dago. Bilakaera hori birusaren kutsakortasun handiaren baldintzapean dago, bai eta, ziurrenik, gaur egun dagoen populazio immunizatuaren proportzio txikiaren baldintzapean ere. Horregatik, eta une honetan eskuragarri dagoen informazioarekin, beharrezkotzat jotzen da hezkuntza-komunitatea irakaskuntza-jarduera presentzialaren garapenean babesteko neurri iragankor batzuk hartzea.

Protokolo orokor horren xedea da **aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera garatzea, pertsonen segurtasun eta osasun-baldintzak bermatuz**, hau da, gure ikasleek kalitatezko hezkuntza segurtasun eta osasun-baldintzetan izateko duten eskubidea bermatzea, bai ikastetxe-ko langileentzat, bai ikasleentzat. Protokolo horretan, abian jarri beharreko antolaketa eta higie-ne neurri batzuk eta neurri teknikoak zerrendatzen dira.

Hala ere, Protokoloa dinamikoa da, eta osasun-agintari-ek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da une oro.

2. HELBURUA

Ikastetxeek hartu beharreko neurrien helburua da **birusaren eraginpean egonak izan litezkeen ikasleek eta langileek COVID-19 hedatzeko aukera prebenitzea eta saihestea**.

Horretarako, ikastetxe bakoitzak, oraingo honetan ezarritako jarraibideei eta osasun-agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuei jarraituz, horietara egokitu beharko du bere jardunean, eta, horretarako, dokumentu propio, erraz eta zorrotz bat ezarriko du **ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitatearekin adostuta betetzeko**, horietako bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta.

Dokumentu horretan honako gai hauek jorratu beharko dira:



- 1) Irakaskuntza presentziala berrabiaraztea, pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.
- 2) Ikastetxeetan COVID-19ren prebentzioa, detekzio goiztiarra eta kontrola ziurtatzea, birusa kutsatzea eta zabaltzea saihestuz.
- 3) COVID-19ren aurrean, ikastetxeko langileen osasuna bermatzeko prebentzio-neurriak eta jarduerak ezagutaraztea, ikasleen zein ikastetxeko lagileen osasuna bermatze aldera
- 4) Alerta zaintzea eta mantentzea, neurrien izaera dinamikoa aintzat hartuz eta osasun-agintariak ezarritako jarraibideen arabera eguneratu daitezkeela kontuan izanik.
- 5) Kontsulta, elkarrizketa eta koordinazio-estrategia bat aktibatzea ikastetxeen jardueradynamikarekin zerikusia duten esparruetan.

3. ERANTZUKIZUNAK

Osasunaren Mundu Erakundeak funtsezko lau osagai zehaztu ditu trantsizioak kudeatzeko eta prebentzio-neurriak modulatzeko. Horietako bat, herritarren konpromisoa lortzeko "gizarte- eta jokabide-ikuspegiei" buruzkoa da, erantzunaren funtsezko zutabea izanik hori, trantsizio unean.

Idea horrek, gure eremura ekarrita, hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzunkidetasuna eskatzen du, kutsatzeko arriskuak minimizatzeko eta bizi dugun osasun-larrialdiaren ondoren ikastetxeetan ohiko jarduera berreskuratzeko. Zalantzarik gabe, guztion ahalegina eta konpromisoa eskatuko duten ondorioak eragingo ditu.

4. OINARRIZKO ERREFERENTZIAK

Oinarrizko erreferentziak jarraitzea lagungarria izan daiteke ikasleak, irakasleak eta langileak ikastetxean seguru egon daitezen eta gaixotasun horren hedapena geldiarazten laguntzeko. Hauek dira ikastetxe osasuntsuentzako gomendioak:

- **COVID-19rekin bateragarriak diren sintoma argiak dituzten ikasleak, irakasle eta gainerako langileak ez dute ikastetxera joan beharko.** Zalantzarik edo sintomarik egonez gero, komeni da ikastetxera joan aurretik tenperatura hartzea.
- **Gizarte-urruntzea** sustatu behar da (oso kutsakorra den gaixotasun baten hedapena geldiarazteko hartzen diren neurri jakin batzuei aplikatzen zaie termino hori, pertsona-talde handien bilkurak mugatuz).
- Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gainerako langile guztiek **maskarak erabili** beharko dituzte ikastetxeko instalazio guztietan.
- **Eskuak sarriago garbitu** behar dira, ikasleak behartuz aldian-aldian garbitu ditzaten, objektuak eta ukipen-gainazalak ukituz gero.
- Garbiketa- eta desinfekzio-neurriak areagotuko dira eskola-esparru osoan (espazioak, tresnak eta/edo materialak).

5. HIGIENE NEURRIAK

Prebentziorako, ezinbestekoa da ikastetxeko ikasleen eta langileen –irakasleak, begiraleak, zerbitzuetako edo garbiketako langileak- higiene-neurriak areagotzea, bai eta eskola-

esparrukoak ere. Neurri horiek eraginkortasunez bete daitezkeela ziurtatzeko, beharrezkoa da ikastetxeak plangintza bat egitea.

Eskola-esparruan badira zenbait eremu, hala nola informatika-gela, ekitaldi-aretoa, irakasle-gela, komunak, liburutegia, eskailerak, etab., eta baita objektuak ere (argi-sakagailuak, ateen heldulekuak, barandak, etab.) aipamen berezia eskatzen dutenak. Higiene-neurriak garrantzitsuak dira eskola-esparru osoan, baina arlo horietan garrantzi handiagoa dute, ikasle asko ibiltzen baitira eremu horietan egunean zehar. Horregatik, komenigarria da horietan neurri higienikoak zorroztea. Nolanahi ere, irakaskuntza-jarduera behar bezala garatzeko une bakoitzean erabili behar ez diren ikastetxeko espazioak itxita egongo dira.

Dokumentu honen eranskinetan daude Osasun Sailarekin adostutako higiene pertsonaleko eta zentroko neurriak.

Azpmarratu beharrezkoa da zentrorantz egunero joaten diren pertsona guztiek aldezturik aurretik adi egon behar dutela honako sintoma hauei: 37°C-tik gorako sukarrak, eztul lehorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usaimena eta dastamena galtzea. Egoera horietan, ez dute ikastetxera joan behar, eta nork bere osasun zentroarekin harremanetan jarri behar du.

6. AURREZ AURREKO IRAKASKUNTZA-JARDUERA GARATZEKO JARRAIBIDEAK

Oinarrizko erreferentziak abiapuntutzat hartuta, prebentzio-neurri orokor batzuk hartu behar dira, betiere osasun-agintariek helarazitako irizpideetan oinarrituta. Irizpide horiek, bestalde, ikastetxeetan antolaketa-neurriak hartzerak ere eraman behar gaituzte.

6.1. Prebentzio-neurri orokorrak

Aurreko atalean eta Eranskinean planteatutako higiene-neurriez gain, beste neurri batzuk ere hartu behar dira, betiere osasun-agintarien jarraibideak aintzat harturik.

Oro har, 2019-2020 ikasturtearen amaierako fase honetan:

- Kasu hauek guztietan, eta arau orokor gisa, **jantoki-zerbitzua ez da berrezarriko** ikastetxeetan; beraz, irakaskuntza-jarduerak garatzeko ordutegi trinkoa ezarriko da.
- Era berean, eta **salbuespen gisa** 2019-2020 ikasturtearen amaiera honetan, ratioa **15 ikaslerak** murriztuko da **irakaskuntza presentzialean**, eskola-postuen artean gutxienez 1,5 metroko tartea sortzeko, betiere maskara erabiliz. Ondorioz, ikasle-kopurua murriztu egingo da, eskola-postuen arteko 1,5 metroko distantzia errespetatzeko behar den neurrian. Era berean, postuok finkoak izan behar dute gela bakoitzean.
- Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gainerako langile guztiek **maskarak** erabili behar dituzte ikastetxeko espazio osoan.
- Eremu komunak edo pasaguneak ezinbesteko den neurrian erabiliko dira, espazio batzuetatik besteetara mugitzeko behar den gutxienezkoan, beste jarduerak batzuetarako erabiltzea saihestuz (solasaldiak, otorduak, kafeak, etab.), eta segurtasun-distantzia errespetatzeko duten zirkuitu seinaleztatuak proposatuz.



- **Lokalen edukiera eta erabilera:**

- Sarbide baimendua duten eremu eta lokal bakoitzeko gehieneko edukiera, horiek erabiltzen dituzten pertsonen artean 2 metroko segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetuko duena izango da. Horien artean, kontuan hartu beharko dira liburutegiak, ordenagailu-gelak, ikasketa-gelak...
 - Laborategiak. Gehieneko edukiera segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetzen duena izango da. Irizpide hori betetzeko, sartzeko txandak ezarriko dira.
 - Ikasgelak, eta irakaskuntza-tailerrak. Gehieneko edukiera segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetzen duena izango da. Irizpide hori betetzeko, sartzeko txandak ezarriko dira.
 - Liburutegi eta ikasketa gelak. Gehieneko edukiera segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetzen duena izango da.
 - Bilera-gelak, ekitaldi-aretoak. Gehieneko edukiera segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetzen duena izango da
- Bainugela eta komunak banan-banan erabiliko dira, konketaren eremu komunak partekatzea saihestuz, eta itxaronaldian pertsonen arteko distantziari eutsiz.
- Hasiera batean, 2019-2020 ikasturtearen amaiera honetan aldagelak eta dutxak erabiltzea saihestuko da. Horiek erabiltzea ezinbestekoa den kasuetan:
 - Uneoro mantendu beharko da aldagelen eta dutxen erabiltzaileen arteko 2 m-ko segurtasun-distantzia, eta ahal den neurrian saihestu beharko da pertsonen une berean gunen horretan bat egitea, batez ere txanda-aldaketak gertatzen direnean.
 - Aldagelak, dutxak, bainugelak eta komunak maizago garbituko dira, gutxienez lan-txanda bakoitzaren ondoren, eta arreta berezia jarriko zaie eskuekin ukitu diren elementuei, hala nola txorroitei, armairuetako ateei, esertzeko bankuei, etab.
- Igogailuak banan-banan erabiliko dira, eta mugikortasun murriztua duten pertsonen soilik.
- Lokalen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barruan airea berritzen laguntzeko.
- Pertsona ugari elkartzeko dakarten kirol-jarduerak egiteko zonak erabiltzea saihestuko da, beharrezkoa den distantzia sozialari eutsi gabe.
- Banakako despatxuak. Banakako bulegoa duten pertsonen lehentasunez eta eskusiboki erabiltzea.
- Despatxu partekatuak. Lan-eremuen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-distantzia bermatzen denean partekatu ahal izango dira, maskara jantzita.
- Informatika-gelen kasuan, ordenagailuak banan-banan erabiltzea gomendatzen da, eta erabilera bakoitzaren ondoren ekipoen garbiketa eta desinfekzioa bermatzea.
- Ateak irekitzeko mekanismoak eta erabilera orokortuko teklatuak erabiltzea saihestea (ateak irekita mantentzea, segurtasunari eragiten ez dion neurrian)

- **Ekipamendua eta higiena**



- Lan-material, mahai, ordenagailu... bereziak erabiliko dira. Telefonoa, entzungailuak, boligrafoak eta gainerako elementuak partekatzea ere saihestuko da, edo, partekatu behar izanez gero, garbiketa eta desinfekzio sakona ziurtatuko da, erabili eta botatzeko materialarekin, erabilerak bakoitzaren aurretik.
- Gela bakoitzak eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko gel hidroalkoholikoa izango du, bai eta erabili eta botatzeko materiala (paperezko zapiak) baztertzeko ontzi edo paperontzi espezifikoak ere. Beharrezko materiala eskuragarri dagoela ziurtatuko da, hala nola erabili eta botatzeko zapiak, maskarak, eskularruak, tapa eta pedala duten ontziak, garbitzeko eta desinfektatzeko materiala eta produktuak, soluzio hidroalkoholikoak, etab.
- Ikastetxe guztiek **maskarak** izango dituzte irakasleentzat eta ikastetxeko langileentzat. Ikasleek nork bere maskara eraman beharko dute, baina, nolanahi ere, ikastetxeak maskara bat bermatuko die hainbat arrazoiengatik maskararik ez duten ikasleei.

6.2. Banakako prebentzio-neurriak

Arnas-sintomak edo sukarra dituzten ikasleek, irakasleek edo bestelako langileek, edo gaixo sintomatiko batekin harreman estua izan dutenek, etxean geratu beharko dute, ikastetxera joan gabe. Lehen mailako arretako zentrotik edo prebentzio-zerbitzutik, kasuak kasu, jarraitu beharreko jarraibideak adieraziko zaizkio, eta jarraipena egingo zaio.

Pertsona guztiek higie pertsonaleko neurri zorrotzak hartu beharko dituzte:

- Eskuak maiz garbitzea urarekin eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholikoekin. Horretarako, ikasgelek eta erabilerak-eremuek gel hidroalkoholikoetako gailuak izango dituzte sarreran. Eskuak behar bezala garbitzeko, komeni da azazkalak motz izatea eta eraztun eta eskumuturrekorrak ez erabiltzea.
- Saihestu begiak, sudurra eta ahoa ukitzea.
- Erabili eta botatzeko paperezko zapiekin ibiltzea.
- Eztul edo doministiku egitean, ondo estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta edo paperezko zapi batekin, arnas jariakinei eusteko; ondoren bota berehala zapi hori paperontzi edo edukiontzi espezifiko batera.

Arau nagusi gisa, uneoro mantendu beharko da pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia. Nolanahi ere, gerta daitezkeen egoeretan zein espazio batetik bestera igarotzerakoan egon daitezkeen aniztasuna kontuan hartuta, ikasle, irakasle eta gainerako langile guztiei adierazten zaie higie-maskarak erabiliko direla ikastetxeko espazio guztietan. Horrela, espazio jakin batzuetan 1,5 metrora murriztu daiteke distantzia, hala nola ikasgeletan, ikasleak mahaian eserita daudenean. Gainera, gomendagarria da ikasle bakoitzak beti mahai bera erabiltzea ikastetxean dagoen bitartean.

6.3. Instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko prebentzio-neurriak

Instalazioak mantentze-baldintza egokietan mantenduko dira, behar bezala garbitu eta desinfektatzeko lana errazteko: hondatutako eremuak konpondu, txukundu, alferrikako materialak kendu...

Instalazio guztiak maiz garbitu eta desinfektatuko dira, kontuan hartuta *Osasun sailburuaren Agindua, 2020ko apirilaren 2koa, gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak eta bestelako higiene-neurriak hartzen dituen SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak eragindako pandemia dela eta.*

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-salbuespenezko-neurrien-araudia/web01-a2korona/eu/>

Arreta berezia jarriko zaie ukipen handieneko azalerei eta ekipamenduei: ateen heldulekuak, etengailuak, mahaia, aulkiak, zoruak, leihoak, laneko materiala, higiene-zerbitzuak, takilak... Horretarako, etxean erabiltzeko lixiba erabil daiteke, 0,1ean diluituta giro-tenperaturan dagoen uretan, erabiliko den egunean bertan prestatua. Lixiba erabili ezin den gainazalari, etanola % 70ean erabili ahal izango da.

Erabili eta botatzeko material espezifikoak duten ontziak, ikastetxe osoan zehar banatuak, maiz hustuko dira eta beti garbi mantenduko dira.

6.4. Antolaketa-neurri orokorrak

Esparru horretan, eta neurri orokorretatik abiatuta, antolaketarako **jarraibide** orokorrak planteatzen dira.

Neurri hauek osasun-agintariak emandako irizpideei erantzuten diete, eta, zentroen autonomian eta horietako bakoitzaren kasuistikan oinarrituta, beren errealitatera egokitu beharko dute.

1. **Pertsonen sarbidea eta fluxuak.** Gizarte-urruntzea bete ahal izateko, honako neurri hauek har daitezke:
 - **Eskola-jardunaldiaren hasiera eta amaiera mailakatzea.** Zentrarako sarrera-irteerak ordenatuta egin beharko dira, eta, behar izanez gero, mailakatuta, pilaketak saihesteko moduan. Horretarako, ikastetxeko eraikin eta instalazioetarako sarrerak eta irteerak seinaleztatuta egongo dira, pertsonen zirkulazioa errazteko. Patioak erabiltzean ere komeni da mailakatzea, haien neurriek ikasle guztiei aldi berean egoteko aukerarik ematen ez badiete. Sarrera mailakatu bat ezarri ahal izango da, maila desberdinetako ikasleak gurutzatu ez daitezten.
 - Ikastetxeak sarrera bat baino gehiago baditu, **sarrera zatikatua antolatzea** eta ahal dela norabide bakarrekoa izatea.
 - **Korridoreetan eta igarobide komunetan**, 2 metroko segurtasun-distantzia mantentzeko moduan zirkulatuko da; horretarako, eremu horien neurrien arabera, beharrezko zirkulazio-bideak mantenduko dira, bai noranzko bakarrean, bai bi noranzkoetan. Ahal den lokaletan, sarrerako eta irteerako fluxuak desberdinak izango dira, jende-pilaketak saihesteko. Fluxu- eta zirkulazio-noranzkoak behar bezala adieraziko dira kartelen, lurzoruko lerroen edo antzeko sistemaren baten bidez.
 - Ikastetxeko zuzendaritzak irakaskuntza-jarduerarako aurreikusitako eremu eta lokaletan izan ezik (behar bezala seinaleztatuta egon beharko baitute aurreikusitako horiek), gainerakoak itxita mantendu beharko dira, sartzeko debekua adieraziz (kirol-eremu eta -instalazioak, jantokiak, officea, atsedeneak).
2. **Jarduerak burutzea**
 - Ikastetxearen tamainaren arabera, ordutegi trinkoan egingo den aurrez aurreko irakaskuntza-jardura antolatzeari begira, egin beharreko ikastaroen eta programaren arabera hautazkoa izan daiteke txandakako egunetan bertaratzea,



prestakuntza- eta tutoretza-jarduerak konbinatuz, eta aurrez aurreko jarduera online jarduerarekin konbinatuz.

- Jolastokiko denbora antolatzea, ahalik eta ikasle gutxienek elkarrekin bat egiteko, eta gizarte-urruntasuna mantentzeko gomendio zorrotzak ematea. Mailaka egin beharko dira, taldekatzeak saihestuz, eta taldeko jolasak eta/edo kontaktu-jolasak saihestu beharko dira. Banakako prebentzio-neurriak mantendu beharko dira.
- Urruntze eta higiene-neurriak betetzen ez dituzten ekitaldi edo bilerarik ez egitea gomendatzen da.
- Batzarrik, kirol-jolasik eta taldekatze-egoerak sortzen dituzten bestelako ekitaldirik ez egitea.
- **Ebaluazio-probak** garatzeko: azterketarien artean segurtasun-distantzia (1,5 m) uneoro mantentzeko behar diren prozedurak ezartzea, honako alderdi hauei arreta berezia eskainiz:
 - Ikasleak azterketa-geletara modu ordenatuan sartzea, pilaketak saihestuz, eta sartzeko ilaran gutxienez 2 metroko distantziari eutsiz; horretarako, aurrez aurreko probetara sartzeko ordutegiak ezarriko dira, denboran eta eraikin berean ebaluazio-talde desberdinak gainjarri ez daitezen.
 - Azterketa-postuak jartzea, eta behar den lekua ziurtatzea, bai sarreran eta irteeran, bai probak egin bitartean.
 - Azterketak nola entregatu eta jaso antolatzea, irakasleen eta ikasleen arteko harreman zuzena saihestuz (gomendagarria da irakasleak azterketa uztea eta jasotzea azterketarien postu bakoitzean, horiek bertan ez daudela).

Irakaskuntza presentzialera itzultzeko daten arabera, ikastetxeak antolatu beharko ditu garatu beharreko jarduera akademikoak (errepaso-eskolak, tutoretzak eta ikasturte amaierako ebaluazioen antolaketa), betiere haren autonomiaren eta hirugarren hiruhilekoan egindako irakaskuntza-jarduera ez-presentzialaren arabera, eta mailaren arabera (DBHko 4. maila, Batxilergoko 1. maila, Lanbide Heziketako 1. Maila...). Hezkuntza Ikuskaritzak ikuskatu egin beharko du. Guztietan bete beharko dira osasun-irizpideen arabera ezarritako aholkuak.

Inguruan patologia izateagatik arrisku-talderen baten eraginpean egon daitezkeen ikasleei dagokienez, ikastetxeko tutoreak berariazko jarraipena aurreikusi beharko du izan ditzaketen gabeziei edo zailtasunei dagokienez, bereziki Batxilergoko 2. eta DBHko 4. mailetan, titulua eskuratzen baita maila horietan.

Ilido horretan, ahal den bidetik, indartze-ariketak edo zereginak egingo dira, eta horiek izango dira ikaskuntzaren jarraipenerako harreman-lotura nagusia.

6.5.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta COVID-19rekiko kaltebera den ikasleentzako arreta antolatzea.

Oro har, bizi izandako egoeraren salbuespen-izaerak zailtasunen bat sortu ahal izan du eremu emozionalean, eta hori kontuan hartu beharko da irakasle guztiek betetzen duten tutoretza-eginkizunean. Zenbait gai orokor landu behar dira, hala nola, gaixotasunaren inguruko **ikasleen**

beldurrak eta antsietateak gutxitzen laguntzea eta haien bizitzetan bigarren mailako edozein inpakturi aurre egiteko gaitasuna indartzea. Halaber, **kontuz** ibili behar da birusaren eraginpean egon diren ikasleak eta langileak **ez estigmatizatzeko**.

Gizarte-zerbitzuekiko harremana estutu beharko da, baztertutako populazioen behar espezifikoetan gaixotasunak edo haren albo-ondorioek eragin handiagoa izan dezaketela aintzat harturik. Arriskua areagotu dezakeen ikasle nesken edozein inplikazio espezifiko aztertzea, hala nola gaixoak etxean zaintzeko erantzukizuna edo eskolatik kanpo daudenean esplotazioa.

Osasun-prestakuntza espezifikoa ezar liteke, gaixotasunen prebentzioa eta kontrola eguneroko jardueretan integratuz. Edukia adinarekin, generoarekin, jatorri etnikoarekin eta desgaitasunarekin ulerkorra dela ziurtatzea, eta jarduerak dauden gaietan txertatzea.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez:

Unitate Terapeutiko Hezigarriak (aurrerantzean UTH) eta Gorbeialde hezkuntza bereziko zentro espezifikoa ikasle guztiei eragiten dieten guneak dira, eta horrek, antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, lehen fasean deseskalatzea erraztu dezake.

Ikastetxe espezifikoen kasuan, nahiz eta ikastetxeak izan, nabarmendu behar da asistentzia-osagai handia dutela gainerakoen aldean, besteak beste, ikasle horien artean beste patologia sanitario batzuk daudelako, eta, ondorioz, erantzun soziosanitario oso zehatz bat.

Unitate Terapeutiko Hezigarrien kasuan, ikasle guztien osasun mentala zaintzeko beharra hezkuntzako profesionalen kezketako bat da, baina ikasle horien kasuan lehentasunezko bihurtzen da, are gehiago kontuan hartuta konfinamendu-egoerak bereziki eragiten duela haien patologien areagotzean. Hori da osasun mentaleko klinikoek duten kezketako bat.

Bestalde, hiru ikastetxeetako zuzendaritzek osaturiko lantaldea, UTHen kasuan, eta Gorbeialderen kasuan ikastetxeko zuzendariak, koordinatzaileak eta Arabako Berritzeguneko HPB aholkulariak osaturikoa, protokolo bat diseinatzen ari dira ikastetxeetan, ikasleak eta irakasleak segurtasun higieniko-sanitarioz bertaratu ahal izatea bermatuko duena. Protokolo horrek kontuan hartuko ditu ikastetxe bakoitzaren errealitatearekin bat datozen antolaketa eta funtzionamendu-alderdiak, sarbideei, ikasleak hartzeko prozedurari, sartzeko eta irteteko ordutegiei, espazioen antolamenduari eta abarri dagokienez. Alderdi horiek, era berean, Osasun Sailarekin egiaztatu eta adostuko dira.

Batxilergoko 1 eta 2. mailetan, eta DBHko 4.ean eskolatutako ikasleei dagokienez, baliabide espezifikoak behar badituzte, irakaskuntza presentziala eten aurretik izan dituztenak mantenduko dira.

6.6 -Irakaskuntza-jarduera garatzeko neurriak

6.6.1 Ikasleen asistentzia

Arreta berezia jarri beharko da ikasleen hutsegiteak kontrolatzeko prozeduran; izan ere, konfinamenduan zehar ikaskuntzarekiko motibazioa jaisteak bereziki kaltebera den ikasleengan eskola-absentismoa areagotzea ekar dezake. Horretarako, komeni da ohiko absentismo-

ereduak gaur egungoekin alderatzea, familiarekin eta ikasleekin ahalik eta denbora laburrenean neurriak hartu ahal izateko.

6.6.2 Irakaskuntza-jarduera garatzeko jarraibideak

6.6.2.1 Ikaskuntzaren jarraipena ziurtatzea

Beharrezkoa da ikaskuntzaren jarraipena ziurtatzea, irakaskuntza planifikatuz kalitatezko hezkuntza inklusiboa izateko eskubidea bermatzeko. Irakaskuntza presentziala eta ez-presentziala konbinatu ahal izango dira, ikastetxe bakoitzak konfinamenduan zehar irakaskuntza ez-presentzialean egindako jardueraren arabera.

2019-2020 ikasturtearen amaierarako Hezkuntza Plana dokumentuak, hezkuntza-jardueraren garapenari buruzko erreferentziak jasotzen ditu:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/eu_def/adjuntos/Plan_educativo_final_curso_2019_2020_e.pdf

Hezkuntzaren arloko BiziBerri Planak hezkuntza-jarduera presentzialerako itzulera mailakatua eta bereizia planteatzen du ikastetxeetan, lehentasun nagusia izanik gure hezkuntza-komunitatearen segurtasuna eta osasuna bermatzea. Ildo horretan, era ofizialean jakinaraziko da irakaskuntza eta prestakuntza-jarduera presentzialerako itzulera.

Hezkuntza-jarduera presentzialerako itzulera mailakatua izango da, ikastetxe bakoitzaren ezaugarrien arabera, eta, batez ere, irakaskuntza presentziala etenda dagoen aldian jarduerak izan duen garapen-maila eta ikasleen profila kontuan hartuta.

Horrela bada, irakasleak eta hezitzaileak ere era mailakatuan itzuliko dira ikastetxeetara, eta, hala badagokio, behar besteko aurrerapenarekin, ikasturtea amaitu arteko ikasleen aurrez aurreko jarduera antolatzeke, bai eta aldi horri dagozkion ohiko eginkizunak betetzeko ere.

Irakasleei, hezitzaileei eta zerbitzuetako langileei dagokienez, sentsibilitate bereziko egoerei arreta jarriko zaie, bai eta ezinbesteko betebeharrei edo egungo egoeran ikastetxean aurrez aurre sartzea eragozten duten beste inguruabar batzuei ere.

Egoera horien zehaztapena horretarako jarraibide batean zehaztuko da, eta langile eta ikastetxe guztiei bidaliko zaie.

Gomendio gisa, 2019-2020 ikasturtearen amaiera honetan aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera hasten denean, Berritzeguneekin eta Ikuskaritza Zerbitzuarekin lankidetzan, ildo nagusiak hauek dira:

- Eskoletara aurrez aurre itzuli aurretik, irakasleek hezkuntza-etapa bakoitzeko maila akademiko bakoitzeko oinarritzko gaitasun-mailak lortzen direla bermatzeko funtsezko alderdiak hautatuko dituzte, lorpen-adierazleetan zehaztuta. Era berean, lorpen hori erraztuko duten funtsezko jarduerak planifikatuko dira.
- Gela bakoitzeko irakasle-taldeek koordinazio-bilerak egingo dituzte, helburu hauekin:
 - Ikasleei buruzko informazioa partekatzea eta taldeko nahiz banakako lorpenen eta premien balorazioa egitea.



- Ikasturte amaierara artean planifikatu diren zereginak partekatzea, horien koherentzia eta osagarritasuna gordetzeko eta eremu/arlo/ikasgai/... guztietatik oinarritzko alderdiak indartzen direla bermatzeko.
- Ikastetxeetan ezarritako koordinazio-taldeen bidez (batzorde pedagogikoak, ziklo-taldea, mintegiak...), prozesu hori garatzeko beharrezko jarraibideak ezarriko dira.
- Aurrez aurreko eskoletara itzultzen direnetik ebaluazio-saiora arte, planifikatutako eta adostutako alderdiak landuko dira, eta, aldiaren behin, irakasle-taldearen bileran hartutako erabakien jarraipena egiteko bilerak egingo dira.
- Lehenengo astean, gomendagarria da bizi izandako egoera ikuspegi afektibo-emozionaletik baloratzea eta aurrez aurrekoa ez den aldiaren lan egindako gutxienekoen errepasoak egitea.
- Gogorarazten da bereziki azpimarratu behar direla etapa amaierako helburuak eta kontuan hartu behar direla DBHko 4. mailak eta Batxilergoko 2. Mailak dituzten berezitasunak, mailaz igotzeari dagokionez.

Irizpide nagusia **malgutasuna** da, **ikastetxearen autonomian eta erantzukizun partekatuan** oinarrituta.

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du, bere autonomiaren baitan, burutu duen irakaskuntza-jarduera ez-presentzialaren garapenaren eta bere egoeraren eta errealitatearen arabera, zein diren garatu beharreko jarduerak eta baita maila bakoitzean (DBH 4., Batxilergoko 1 edo 2) taldearo ikasgelan eman behar zaion arreta zuzenaren gradua ere.

Era berean, beharrezko erabakiak hartuko ditu ikasturtearen une honetan funtsezko eta gako diren jarduerak egiteko eskolak emateari buruz, errefortzu eta errepaso-saioak emateari buruz eta azterketak egiteari buruz, bai eta banakako tutoretza- eta orientazio-lanei buruz ere, beharrezkotzat jotzen bada, hainbat modalitate konbinatuz.

Azken batean, ikastetxeak zehaztuko du aurrez aurreko irakaskuntza-jarduerara itzultzeko plana, oinarritzko erreferentzietan eta ezarritako jarraibideetan oinarrituta, Ordezkaritza Organo Gorenaren etengabeko kontsultaren ondoren, betiere Ikuskaritza Zerbitzuaren baimena izanda.

Bestalde, pertsona-taldearen presentzia eta mugikortasuna ahal den neurrian gutxitze aldera, ikastetxerako sarbidea kontrolatuko da, eta bertaratzea justifikatua, planifikatua eta zentroko zuzendaritzak baimendua duten pertsonak soilik joan beharko dira. Ikastetxetik kanpoko pertsonak (famiak edo legezko tutoreak...) aurretiko hitzorduarekin joan beharko dute.

Malgutasunez jokatu da egoera ahulean dauden eta osasun-arriskua duten familien kasuan, eta lehentasuna emango zaie laguntza-premia handienak dituzten ikasleen familiei. Ikasle horien prestakuntzaren jarraipena eta laguntza ziurtatuko da, baldin eta, egoera ikusita, ezin baditu jarduerak aurrez aurre egin.

7 BESTELAKO GOGOETA BATZUK

7.1 Informazioa eta komunikazioa. Guraso elkarteekiko komunikazioa.

Informazioa eguneratuta eduki behar dugu: Administrazioa, ikastetxeak eta hezkuntza-komunitateko kideak informatuta egon behar dugu COVID-19ren inguruan, iturri ofizial eguneratuen bidez, bai sintomei dagokienez edo transmisioari aurrea hartzeko moduei dagokienez.

Ahoz aho edo Interneten ibil daitezkeen sasi-informazio edo mito faltsuekin adi egon behar da. Horretarako, informazioa etengabe eguneratuta dago Osasun Sailaren webgunean: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitza/osasun-saila/hasiera/>

Konfiantza eta konplizitatea sortu behar dira, ahalik eta denbora laburrenean normaltasunera itzuli ahal izateko, eta horrek nolabaiteko erantzukizuna eta autoeskakizuna eragiten die ikasleei, haien familiei, ikastetxeko langileei, eta baita Administrazioari ere.

Garrantzitsua da guraso elkarteekin informazioa trukatzeari; izan ere, familiek eta legezko tutoreek argi jakin behar dute ikastetxeek zein baldintza bete behar dituzten irekitzeko, eta zein eginkizun duten sintomak agertzen direla zaintzeko. **Era berean, garrantzitsua da, informazio erabilgarria hedatzea sustatuz, laguntza eskaini baitezakete.**

Guraso Elkarten kasuan, (familiak eta/edo legezko tutoreak) argi eta garbi jakin beharko dute zer baldintza bete behar diren ikastetxeak irekitzeko eta zein eginkizun duten sintomak agertzen direla zaintzeko. Ikastetxe bakoitzean komunikazio-protokoloak eta harremanetarako pertsonak ezartzea gomendatzen da. Ikastetxe bakoitzak baliabideak izan behar ditu aurrez aurrekoak ez diren jardueretan konektatzen ez diren edo parte hartzen ez duten ikasleekin eta familiekin harremanetan egongo dela ziurtatzeko, bere egoera zein den identifikatzeko eta jakinarazteko, behar diren baliabideak badituztela bermatzeko eta ikasle horien berriazko hezkuntza-jarraipena egiteko. Hori guztia Administrazioari jakinaraziko zaio, laguntza eta jarraipen-zentroko erreferentziarako ikuskatzailearen bidez.

Ziurtatu haurren galderei eta kezkei ere heltzen zaiela, baita hurrei egokitutako materialak eginez ere, hala nola iragarki-tauletan, komunetan eta erdialdeko beste leku batzuetan jar daitezkeen kartelak.

7.2 Zer egin gaixotasuna izanez gero

Gurasoek edo legezko tutoreek eskola-agintariei eta osasun-agintariei ohartarazi behar diete etxean norbait COVID-19rekin diagnostikatu badute, eta seme edo alaba etxean eduki behar dute.

Zehazki, gaixotasunaren **sintomak susmatzen badira** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, ondoez orokorra...), familiari jakinarazi behar zaio ikaslea jaso dezaten, bereziki adingabea bada. Familiak **900 20 30 50** telefono zenbakira deitu beharko du egoera baloratzeko. Laborategiko emaitzak lortu arte, isolatuta mantenduko da pertsona, kasu baieztatu baten kontrol-neurriari jarraituz.

Ikastetxeko langileen artean gaixotasunaren **sintomak agertzen badira**, horiek ere etxera joan beharko dute eta gomendio berberak jarraitu.

Ikastetxeko langileen artean edo ikasleen artean COVID-19 kasu bat baieztatzen bada, **Zaintza Epidemiologikoko Unitatea** ikastetxeko zuzendaritzarekin harremanetan jarriko da arriskuaren ebaluazioa egiteko, kasuarekin kontaktua izan duten pertsonak identifikatzeko eta hartu beharreko neurriei buruzko aholkuak emateko.

7.3 Laguntza psikosozialeko beharrei heltzea

Badira landu beharreko zenbait gai orokor, hala nola **ikasleen gaixotasunaren inguruko beldurrak eta antsietateak gutxitzen** laguntzea eta haien bizitzetan bigarren mailako edozein inpakturi aurre egiteko gaitasuna indartzea. Halaber, **kontuz** ibili behar da birusaren eraginpean egon diren ikasleak eta langileak **ez estigmatizatze**ko.

Beharrezkoa da estigmatizazioaren eta diskriminazioaren aurka egitea eta prebentzio-neurriak hartzea, birusaren eraginpean egon direnen aurreiritziak eta bazterkeria saihesteko.

Bizi izandako egoeraren salbuespen-egoerak zailtasunen bat sortu ahal izan du esparru emozionalean, eta hori kontuan hartu beharko da irakasle guztiek betetzen duten tutoretza-funtzioan.

Familiarekin, legezko tutoreekin eta ikasleekin komunikatzea lehentasunezkoa izango da arrisku-kasuetan, baina baita gainerako ikasleekin ere; beraz, tutoretza-ekintzaren esparruan, gomendatzen da zeharkako gaitasunen garapenarekin oso lotuta dauden eremu hauetako batzuk planteatzea taldeko edo banakako tutoretza-saioetan: izaten jakitea, harremanak izaten jakitea eta ikasten ikastea.

Bizikidetza-programak eta eskola-jazarpenari aurre egiteko protokoloak eguneratu behar dira, COVID-19agatik diskriminazioa prebenitzeko eta geldiarazteko, eta sufritzen ari diren pertsonak babesteko.

Ikasleak beren **galderak eta kezkak eztabaidatu ditzaten animatu** behar dira. Erreakzio desberdinak espermentatzea eta irakasleekin hitz egitera animatzea normala dela azaldu behar zaie, galderaren bat edo kezkaren bat izanez gero. Informazio zintzoa eta adinerako egokia eman behar zaie. Ikasleak gidatu, ikaskideei laguntzeko moduari buruz, eta **bazterkeria eta larderia saihesteari buruz**. Irakasleek beren ongizaterako **tokiko baliabideak ezagutzen dituztela** ziurtatzea. Osasun eta gizarte-langileekin lan egitea, larritasun-zantzuak dituzten ikasle eta langileak **identifikatzeko eta laguntzeko**.

7.4 Laguntza eta jarraipen-batzordea

Aurrez aurreko irakaskuntzara itzultzeko prozesuaren jarraipen-batzorde bat ezarriko da, honako hauek osatua: ikastetxeko zuzendaria, ikastetxeko lan-arriskuen prebentzioaren arduraduna, guraso bat edo OOGko batzorde iraunkorreko kide bat, Berritzeguneko erreferentziatzeko pertsona eta ikastetxeko ikuskaria.



Ikastetxeak Berritzeguneen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren aholkularitza eta laguntza izango du, eta jarraipen-batzolrdeak Ikuskaritza Orokorrari jakinaraziko dizkio egun horietan irakaskuntza-jardueran sor daitezkeen zalantzak eta gorabeherak.

Hezkuntza Sailean Jarraipen Batzorde bat eratuko da, honako hauek osatua: ikuskatzaile nagusia, Berrikuntzako zuzendaria, Ikastetxeen eta Plangintza zuzendaria, Azpiegitura, Baliabide eta Teknologien zuzendaria eta Osasun Saileko ordezkari bat. Batzorde horrek sor daitezkeen zalantzak eta gorabeherak aztertuko ditu, eta horiei erantzungo die.



HIGIENE NEURRIAK IKASTETXEAN

SARS-CoV-2 koronabirusaren kasu batek ez tul edo doministiku egitean kanporatutako listu-tantatxoak hurbil dauden pertsonen ahoarekin edo sudurrearekin kontaktuan jar daitezke, edo azaleretan geratu (mahaiak, ateen heldulekuak, objektuak, jostailuak ...) eta bertan ordu batzuk mantendu. Horregatik, garrantzitsua da ikastetxean higie ne neurriak mantentzea, indartzea eta prozedura berriak ezartzea.

Garbiketa eta desinfekzioa

Ikastetxeko objektuak eta ingurumen-gainazalak garbitzea eta desinfektatzea lagungarria da haietan egon daitezkeen birusak desagerrarazteko, birusaren transmisioa minimizatzea ahalbideratuz.

- Garbiketa prozeduretarako jarraibideak normalean egiten direnak dira. Komertzialki eskuragarri dagoen edozein **xaboi edo detergentea** erabil daiteke. Ura hotza edo epela izan daiteke, edo erabilitako garbiketa-produktuaren etiketan gomendatzen denaren arabera.
- Xaboiarekin edo detergentearekin garbitu ondoren, urarekin garbitu behar da.
- Desinfektatzaileak eta garbitzaileak erabiltzen direnean, jarraibideak arretaz jarraitu.
- Mahaietan edo objektuetan utzitako hautsa urarekin eta xaboiarekin kendu beharko da, eta ez trapu lehorrekin. Ahal den guztietan mopa eta fregona erabili, eta ez erratza. Izan ere, eskobatzean lurretik hautsa altxatzen da.



- Informatika-gelan, ekitaldi-aretoan edota eskola-kafetegian garrantzitsua da higie-ne neurriak areagotzea; izan ere; egunean zehar haietatik igarotzen diren ikasleen joan-etorri handia da.

Garbiketa ikastetxe osoan egingo da, **gutxienez egunean behin**. Honakoetan arreta berezia jarriko da:

- Mahaiak eta aulkiak.
 - Ateen heldulekuak.
 - Argiaren etengailuak, telefonoak, tinbreak.
 - Eskolako materiala eta material didaktikoa.
 - Gela partekatuak (informatika, ikus-entzunezkoak ...).
 - Ordenagailuetako teklatuak eta saguak.
 - Komunak.
- **Lurrerako alfonbrarik edo estalkirik ez izatea gomendatzen da**, salbu eta horietan garbitasuna zorrozten bada. Edukiz gero, ez dira astindu behar garbitzean.
 - Komenigarria da **erabilera bakarreko paperezko ezpainzapiak** erabiltzea. Erabili ondoren, baztertu egingo dira egunero. Posible bada, pedala eta estalkia duen kubo batera botako dira, plastikozko poltsa bat duena. Paperezko ezpainzapia baztertu ondoren, komenigarria da eskuak garbitzea.
 - Irakasleek adi egon behar dute haize-instrumentuak, arkatzak, errotuladoreak eta ikasleek ahaztuta eraman eta beste batzuekin parteka dezaketen material guztia ez partekatzeko.
 - Gomendagarria da posible balitz, geletako mahaien arteko espazioa urruntzea.

Ikastetxearen aireztapena

- Egunero aireztatu behar dira ikasgelak, jantokiak, komunak eta ikastetxeko gela guztiak. Eskolak hasi aurretik eta ondoren, gutxienez, irekiko dira ikasgeletako leihoak.

Jantokiak

- Jateko tresnak (baxera, mahai-tresnak, edalontziak, etab.): Ikastetxeko ikasleek eta langilegoa erabiltzen dituztenak, garbiketa egokia izan behar dute, ohiko moduan. Ez da beharrezkoa gomazko eskularru esterilak erabiltzea.
- Arreta handia jarri behar da ikastetxeko ikasleen artean edalontziak, mahai-tresnak, ezpainzapiak eta hortzetako eskuilak ez trukatzeko.
- Sukaldeetan otorduak egiteko erabiltzen den materiala ohiko moduan garbitu behar da.



Eskola-garraioa (autobusa)

- Eskola-garraioa erabiltzen bada, komenigarria da ondorengo higie-ne neurriak hartzea:
 - Ibilbidearen aurretik edo ondoren autobusak aireztatzea.
 - Autobus barruko gainazalak urez eta detergentez garbitzea.
 - Erabilera bakarreko papera, posible bada, barruan plastikozko poltsa eta estalkia duen kubo batera bota.

Hondakinen kudeaketa

Ikastetxeak ohiko hondakinen kudeaketa mantenduko du. Hondakinen kudeaketa egiten duten langileak zorrotzagoak izatea gomendatzen da, batez ere hondakinak erabiltzeko behar duten babesari dagokionez. Beti eskularruak erabil behar dituzte.

Higie-ne pertsonalerako materiala

- Komeni da zentroak higie-ne pertsonalerako material hau eskura izatea:
 - Eskuak garbitzeko xaboia, banakako dispentsazioduna izango da.
 - Oinarri alkoholikoko prestakinak.
 - Erabilera bakarreko paperezko eskuoihalak edota esku-lehorgailu elektrikoak, oihalezko eskuoihalak ekidituz.
 - Erabilera bakarreko zapiak.
 - Estalkidun kuboak.
 - Plastikozko xabor poltsak.
- Material hori edukiz gero, beharrezkoa den leku gehienetan banatuko da, hala nola, komunetan, jantokian, patioetan ... eta gune horietako bakoitzean kubo bat jarriko da, ahalik eta eskuragarriena. Kubo horrek pedal bidezko irekiera izango du, eta plastikozko poltsa izango du barruan. Eztul egin, doministiku egin edo sudurra garbitu ondoren, erabilera bakarreko paperezko zapiak botatzeko.

Ikastetxea garbitzeko materiala

- Komertzialki eskuragarri dagoen edozein xaboi edo detergente erabil daiteke.
- Garbiketarako eskularruak.
- Lixiba.
- Garbiketarako ohiko produktuak.



HIGIENE PERTSONALERAKO NEURRIAK

Eskuen higieena ura eta xaboiak (1. irudia)

- Eskuen higieena ura eta xaboiarekin egitea gomendatzen da.
- Gomendagarria da eskuak maiztasunez garbitzea eta bereziki:
 - ✓ Eztul egin ondoren.
 - ✓ Doministiku egin ondoren.
 - ✓ Mukiak jo ondoren, sudurra edo ahoa ukitu ondoren.
 - ✓ Bazkari bakoitzaren aurretik eta ondoren.
 - ✓ Komunera joan ondoren.
 - ✓ Jolastu edo objektu arruntak ukitu ondoren.
 - ✓ Bereziki zikinak daudela ikusten denean.

Eskuak garbitzeko prozedura ondorengoa da (ikusi 1. irudia):

1. Lehenengo eskuak urarekin busti.
2. Xaboa aplikatu eta eskuak igurtzi hatzen artean eta azazkalen azpian garbituz.
3. Ondoren txorrotako ur askorekin urberitu.
4. Eskuak lehortu erabilera bakarreko zapi batekin.
5. Aipaturiko erabili bakarreko zapiak txorrota itxi.
6. Erabilera bakarreko papera, pedala eta estalkia duen kubo batera bota, ahal bada, plastikozko poltsa duena. Ondoren kubo itxi.

2. Irudia. Arnas-higienerako neurriak



- 1.** Eztul eta doministiku egitean estali ahoa eta sudurra **PAPEREZKO MUSUZAPIEKIN**, eta **ZABOERRETARA** bota.
- 2.** Ez baduzu paperezko zapirik, eztul eta doministiku egin **ALKANDORAREN MAHUKAREN GAINEAN**, eskuak ez kutsatzeko.

MASKARA IKASTETXEETAN BETI

NOIZ ETA NOLA ERABILI MASKARA?



NORK ETA NON?

- Arrisku-taldeko pertsonekin egon behar baldin baduzu
- Arrisku-taldearen parte baldin bazara
- Leku itxietan, 2 metroko distantzia ezin baldin baduzu mantendu

NOLA?

Garbitu eskuak
erabili aurretik
eta ondoren



Ondo estali ahoa,
sudurra eta kokotsa,
aurpegiaren eta
maskararen artean
tarterik utzi gabe (ez
ipini ez lepoan ezta
ahoa)

Kendu
belarrietako
kordeletatik hasita



Aldatu hezea
dagoenean edo
hondatzen denean.
Botatzerako orduan,
sartu poltsa itxi batean
esposizioa saihesteko

Berrerabilgarria
bada, gorde
ezazu poltsa
itxi batean



**EZ UKITU
AURREALDEA.
EGITEN BADUZU,
GARBITU ESQUAK**

- Eskularruek birusa transmititu dezakete, zure eskuen antzera, garbi ez badaude
- Maskararen erabilera eskuak garbitzearekin batera joango da beti